

**HEGO EUSKAL HERRIKO
EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA
ARLOKO EPAITEGIAK**

Egoeraren azterketa eta proposamenak

2018ko azaroa



www.lab.eus

AURKIBIDEA

SARRERA	05
EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EPAITEGIEN BENETAKO EGOERAREN AZTERKETA	07
I. PROZEDURAN PARTE HARTZEN DUTEN HAINBAT ERAGILEREN AZTERKETA	07
A) GORPUTZ POLIZIALEN JARDUERA	07
B1) EPAITEGIETAKO LANGILEAK	07
B2) ORGANOETAKO ARDURADUNAK	08
C) LAGUNTZA JURIDIKOA INDARKERIAREN TXANDA ESPEZIFIKOAN	08
D) FISKALTZA	10
E) BALORAZIO FORENTSE INTEGRALERAKO UNITATEA	10
F) EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EPAITEGIETAKO INTERPRETEAK	12
G) BIKTIMARI LAGUNTZA ZERBITZUA	12
II. BALIABIDE MATERIALEN AZTERKETA	13
III. GENERO INDARKERIAREN INGURUKO FORMAZIOAREN AZTERKETA	14
EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA ARLOKO EPAITEGIETAN ATZEMAN DIREN HUTSUNEAK KONPONTZEKO PROPOSATZEN DITUGUN NEURRIAK	16
I.- GIZA BALIABIDEAK	16
II.- BALIABIDE MATERIALAK	17

SARRERA

Emakumeen kontrako Indarkeria arloko Epaitegiak 2005ean hasi ziren martxan EAEn eta 2007an Nafarroan, Genero Indarkeriaren aurkako Lege Integralaren onarpenaren ondoren.

Indarkeria matxistaren inguruan hainbat eta hainbat arau zein lege daude eta berriak ere sortzen ari dira: Istanbulgo Hitzarmena, CEDAW Nazioarteko Ituna, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoa, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Legea EAEn, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko Lege Forala, besteak beste; hala eta guztiz ere, indarkeria matxistaren aurrean instituzioek dauzkaten erronka handienak oraindik daude konpontzeke.

Nazio Batuen Erakundearen Asanbladak emandako adierazpenak honelaxe dio: *"Emakumeen kontrako indarkeriatzat ulertzen dugu edozein indarkeria ekimen, emakume izateagatiko arrazoiari oinarritzen dena eta emakumeari kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edota fisiologikoa dakarkiona, baita ekintza horiekin mehatzatzea ere, koakzioa edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizi publikoan zein pribatuan"*

Aitzitik, lege integralak definizio hau mugatzen du eta emakumeen kontrako indarkeriatzat ezkontideak edo ezkontekide ohiak zein, elkarrekin bizi ez arren, pareko afektibitate harremana izan duten edo daukaten horiek burutzen duten indarkeria kasuetara murrizten du. Hortaz, emakumeenganako indarkeria adierazpide asko uzten ditu kanpoan: emakumeen trata, mutilazio genitala, sexu erasoak, laneko jazarpena, bortxaketak eta abar. Emakumeen kontrako indarkeria giza eskubideen afera da, izan eremu pribatuan, izan publikoan.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA ARLOKO EPAITEGIAK HEGO EUSKAL HERRIAN

Epaitegi hauek Hego Euskal Herrian sortu ziren baliabide espezifiko nahikorik gabe, ez giza baliabiderik, ez baliabide materialik. Eta gabezia horren arrazoiak ez zen izan behin eta berriro aitzakiatzat erabiltzen den krisialdi ekonomikoa, interes politikorik eza baizik.

Nafarroa:

- Emakumeen kontrako indarkeria epaitegi bat
- Lau epaitegi bateragarri
 - Agoitzeko Lehen Instantziako eta Instrukzioko 02 Epaitegia
 - Lizarrako Lehen Instantziako eta Instrukzioko 01 Epaitegia
 - Tafallako Lehen Instantziako eta Instrukzioko 01 Epaitegia
 - Tuterako Lehen Instantziako eta Instrukzioko 02 Epaitegia
- Zigor arloko Epaitegi espezializatu bat Iruñan

Bizkaia:

- Emakumeen kontrako indarkeriaren hiru epaitegi eskusibo
 - Bi Bilbon
 - Bat Barakaldon

- Zigor arloko Epaitegi espezializatu bat Bilbon
- Lau epaitegi bateragarri
 - Zigor arloko laguntza zuzeneko unitate prozesal bat, Balmasedako 01 (gaztelarazko UPAD)
 - Zigor arloko laguntza zuzeneko unitate prozesal bat, Durangoko 04
 - Zigor arloko laguntza zuzeneko unitate prozesal bat, Gernika-Lumoko 03
 - Zigor arloko laguntza zuzeneko unitate prozesal bat, Getxoko 04

Gipuzkoa:

- Emakumeen kontrako indarkeriaren epaitegi eksklusibo bat Donostian
- Bost epaitegi bateragarri
 - Zigor arloko laguntza zuzeneko unitate prozesal bat, Azpeitiako 01
 - Zigor arloko laguntza zuzeneko unitate prozesal bat, Bergarako 02
 - Zigor arloko laguntza zuzeneko unitate prozesal bat, Eibarko 02
 - Zigor arloko laguntza zuzeneko unitate prozesal bat, Irungo 04
 - Zigor arloko laguntza zuzeneko unitate prozesal bat, Tolosako 01

Araba:

- Emakumeen kontrako indarkeriaren epaitegi eksklusibo bat Gasteizen
- Epaitegi bateragarri bat
 - Amurrioko Lehen Instantziako eta Instrukzioko 01 Epaitegia

Emakumeen kontrako indarkeria epaitegiek eta epaitegi bateragarriek genero indarkeriaren inguruko gero eta eskumen gehiago eskuratu dituzte. Emakumeen ohorearen, intimitatearen eta irudi propioaren kontrako delituak, kondena edo kautelazko neurrien haustea, "ziber-jazarpena" e.a. euren gain hartzeak epaitegi hauen jardura izugarri handitu du. Jardueraren hazkunde hau, ordea, ez dator bat instituzio publikoek egin duten apostu eta inbertsioarekin.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EPAITEGIEN BENETAKO EGOERAREN AZTERKETA

I. PROZEDURAN PARTE HARTZEN DUTEN HAINBAT ERAGILEREN AZTERKETA

A) GORPUTZ POLIZIALEN JARDUERA

Gorputz polizialen inguruan, ezberdintasun garrantzitsuak daude "Babes Ordenaren eskaera" jasotzen duen atestatua Epaitegian aurkezten denean, honek dauzkan ondorioekin. Adibidez, Emakumeen kontrako Indarkeriaren Donostiako Epaitegian, Ertzaintzak epaitegira balorazioaren emaitza baino ez du igortzen; Udaltzaingoaren kasuan, ordea, honek balorazio osoa igortzen du. Gure ustez, organoko titularrak zenbat eta datu gehiago izan, orduan eta aukera handiagoa izango du biktimaren arriskua sakon ulertzeko.

B1) EPAITEGIETAKO LANGILEAK

Emakumeen kontrako indarkeria epaitegietan langile kopuruaren eta garatzen duten jardueraren artean desoreka handia dago. Epaitegi hauen zeregina da, ohiko atestatu guztiak ez ezik, gorputz polizialek bideratzen dituzten eta atxilotu edota babes ordenaren eskaera dakarten beste atestatuak ere tramitatu, instruitu eta epaitzea. 13:00tik aurrera, indarkeria gaiak guardia epaitegietan hartzen dira eta, hortaz, organo honetako epaileak eginbide urgenteak erabakitzen ditu: urrunketa ordenak, babes ordenak, akusatua atxilotzea ala ez... hau da, azken erabakia genero indarkerian formatzera behartuta ez dagoen epaile baten esku geratzen da.

Kontuan izan behar da gai bakoitzak behar duela (edo behar lezakeela) hurrengo izapideak egiteko denbora: alde biei deklarazioa hartu eta, behar izanez gero, lekukoei ere bai; azterketa forentsea; elkarrizketak abokatuarekin; bista burutzeko denbora... Gorputz polizialek adierazten dute, agenda elektronikoaren bitartez, egunean jorratu behar diren gaiak zeintzuk diren; agendan egun bakoitzerako, gehienez, lau gai sartu beharko liratezke, baina oso ohikoa da poliziak atxilotu gehiago jartzea epaitegiaren esku eta, hortaz, sarritan agenda bikoiztu ere egiten da.

Agendako gaiak areagotzen diren kasuetan langileek ordu gehiagok lan egitera behartuta egoten dira, Justizia Administrazioan araututa dauden zazpi ordu eta erdiak baino gehiago, alegia, eta ez dute jakiten zein izango den irteera ordua. Hortaz, langileek euren kabuz hau guztia antolatu behar izan dute eta "guardia egutegia" osatu behar izan dute, zerbitzuaren premiei erantzun ahal izateko eta, ahal den moduan, euren bizi pertsonalak antolatu ahal izateko. Hau da, araututa ez badago ere, berez eta langileen borondate onari esker, guardiaren pareko zerbitzua ematen dute zerbitzuaren premiei aurre egin ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzak, Fiskaltzak, gorputz polizialek, Zerbitzu Forentseak eta abarrek beti hitz egiten dute indarkeria epaitegietako guardiako txandaz. Guardia honen inguruko hainbat aipamen aurkitu ditugu, era berean, Emakundek egindako txostenetan, baita EAEko Fiskaltzaren 2017 Memoria txostenean, nahiz eta guardiako txanda hau berez ez existitu.

Esan dugunez, epaitegi hauetako langileek guardia epaitegietako zeregin berberak egiten dituzte, baina behar bezalako antolakuntzarik gabe eta guardia epaitegitan dauden giza baliabiderik gabe. Honek neke eta estres handia sorrazten du eta, ondorioz, tentsio eta erneguz beteriko giroan egiten da lan... antolakuntza eta baliabide faltaren ondorio hauek guztiak langileek zein indarkeriaren biktimek pairatzen dituzte egunez egun.

Azaldutako honen guztiaren emaitza daukagu Indarkeria Epaitegietan usu gertatzen dena: **gehienetan bertako langileak bitartekoak edo interinoak dira, langile titularrek epaitegi hauetatik ikaraturik ihes egiten baitute.**

Indarkeria matxistaren biktimei kalitateko zerbitzua eman ahal izateko, epaitegi hauek formatutako langile iraunkorrak behar dituzte eta, honetarako, ezinbestekoa da behar den bezalako antolakuntza egotea eta behar besteko baliabideak edukitzea, bai giza baliabideak, bai baliabide material egokiak.

B2) ORGANOETAKO ARDURADUNAK

Hainbat epaitegitako langile kopurua ez da batere nahikoa; agendari epaile bakar batek egiten dio aurre. Aldez aurretik ezarri diren ohiko izapideekin (lekukotzak, bistak, azterketak, agertze edo konparezentziak...) guardiako lana ere nahasten da; hortaz, epailea auzitegira joaten denean ez daki eguneroko guardiak zenbateko lan ekarriko ote dion.

Epailea oportretan dagoenean, EAEn, auzitegietako gaien kudeaketa are zailagoa izaten da, ez baita inor izendatzen ordezkapena egiteko; beraz, gaien tramitazioa guardiako epailearen bizkar geratzen dira eta honek, horretaz gain, bere epaitegiko gai propioei ere egin behar die aurre. Hortaz, guardiako aferak zein genero indarkeria aferak, biak, atzeratu egiten dira eta gai hauek merezi duten arretaren kalitatea arras gutxitzen da. Nafarroan ordezeko epailea izendatzen bada ere, ordezeko honek ez du zertan genero formaziorik izan.

C) LAGUNTZA JURIDIKOA INDARKERIAREN TXANDA ESPEZIFIKOAN

Hego Euskal Herrian emakumeen kontrako indarkeria epaitegietan laguntza juridikoaren txanda bi hitzarmenek arautzen dute. Hitzarmen hauek ondorengoan artean sinatutakoak dira: batetik, Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Abokatuen Elkargoa (2000. urtean) eta, bestetik, Eusko Jaurlaritza eta Abokatuen Euskal Kontseilua (2007an).

EAeko hitzarmenak zortzigarren puntuan zera dakar: *"laguntza juridiko espezializatua behar den arintasunez emango dela bermatzeko, Abokatuen Elkargoek zainduko dute 902103908 telefonoan eskaera jasotzen denetik, harik eta abokatu tokian bertaratu arte, ahalik eta denborarik laburrena pasatuko dela eta, honela, laguntza ahalik eta lasterren jasko dela -poliziaren dependentzietatik edo epaitegietatik egiten diren laguntza eskaeretak denbora tarte hau ez litzateke ordu eta erdi baino luzeagoa izan beharko-, ezinbesteko arrazoirik edo ustekabeko gertaerarik ezean. Deia jasotakoan abokatuak adieraziko du zenbateko denbora emango dion".*

Hitzarmenean adierazten da Abokatuen Elkargoek emango duten laguntza juridikorako 8 titular eta 7 errefortzu izango direla eta honelaxe egongo direla herrialdeetan banandurik: 4 titular eta guardiarako hiru errefortzu Bizkaian, 3 titular eta 2 errefortzu Gipuzkoan eta titular 1 eta errefortzu 2 Araban. Geografikoki honelaxe banatuko dira:

Bilbo: 2 titular + errefortzu 1

Barakaldo-Getxo-Balmaseda: titular 1 + errefortzu 1

Durango-Gernika titular 1 + errefortzu 1

Irun-Donostia-Tolosa: 2 titular + errefortzu 1

Azpeitia-Bergara-Eibar: titular 1 + errefortzu 1

Gasteiz: titular 1 + errefortzu 1

Amurrio: titular 1

Gure ikuspuntutik, eta emakumeen kontrako indarkeria epaitegietan benetan gertatzen dena aztertuta, laguntza juridikoaren zerbitzu hau ez da inondik inora nahikoa; izan ere, itxaronaldiak sarri askotan ordubete eta erdi baino luzeagoak izaten dira. 2007tik, hau da, hitzarmena sinatu zenetik, indarkeria epaitegietan jorratzen diren gaiak gehitu dira, legean izan diren hainbat aldaketa direla medio.

Zerbitzu honek kasu askotan atzerapen handiak sortzen ditu eta kontuan hartu behar da prozedura hau urgentziazkoa dela eta halaxe dagoela aitortuta. Biktimek eta eurekin batera datozen lagunek luzaroan egoten dira itxaroten epaitegietan. Kexuak etengabeak dira eta honek gatazkak sortzen ditu Justizia Administrazioako langileen eta herritarren artean, azken hauek behin eta berriro aldarrikatzen baitute arreta egokiagoa, langileen esku ez dagoena.

Jakin badakigu abokatu askok txanda hau uzten dutela, sorrarazten dien nekeagatik: "indarkeria epaitegira badakizu noiz sartzen zaren, baina sekula ez noiz irtengo zaren".

Txanda honetan aritzen diren abokatuen euskararen ezagutzari dagokionez, hitzarmenak ez du txanda espezifikorik ezartzen. Hala ere, zigor arloko txanda generikoan badago abokatu euskaldunen txanda bat ezarrita eta, hortaz, baliteke laguntza juridikoa euskaraz jasotzeko eskaerak erantzunik ez izatea.

Nafarroan arazoa Iruñako eta Aoizko Indarkeria Epaitegietan daukagu: Abokatuen Elkargo berbera konpartitzen dute eta, horregatik, Emakumeei Laguntza Zerbitzuaren guardiako abokatuen zerrenda ere berbera da. Hau dela eta, zerbitzu honetako pertsona berak ematen die biktimei laguntza bi epaitegietan sortzen diren gai guztietan; honela, aferak denbora berean sortzen direnean, lehenengoz epaitegi batera joan behar da eta segidan bestera eta, hortaz, biktima bat ala bestea, epaitegi bat ala bestea, beti izaten da kaltetua.

Nafarroan Emakumeei Laguntza Zerbitzuko zerrendetan dauden abokatuek euskara ezagutzea kontuan hartu ere ez da hartzen.

D) FISKALTZA

Nahiz eta Salako Fiskalak ezarri "auzien kopurua dela eta, Emakumeen kontrako Indarkeria Epaitegi eskusiboak dauden tokietan, zigor arloko honelako arau hausteetan espezializatuta dauden fiskalak ere egongo direla", edozelan, herrialdeetako fiskaltza guztietan emakumeen kontrako indarkeriaren atalak badaude eta hauek guztiak Estatu mailan Emakumeen kontrako Indarkeriaren Salako Fiskalak koordinatzen ditu.

Hau esanda, EAEko Fiskaltzaren 2017ko Memoriaren arabera, fiskaltzen antolaketa ezberdina da herrialdearen arabera:

"Bizkaiko fiskaltzan, etxeko indarkeriaren saila eta genero indarkeriaren saila elkarturik daude eta euren funtzionamoldea ia-ia berbera da; salbuespen bakarra da ez dagoela fiskal kopuru zehatzik horrelako gaien tramitaziorako, aitzitik, Instrukzio epaitegietako fiskal bakoitzari dagozkio, bai Bilboko epaitegian, bai herrialdeko gainontzeko epaitegietan.

Gipuzkoan genero indarkerian espezializaturik dauden fiskalek herrialdeko Instrukzio Epaitegietan hasten diren etxeko indarkeriaren gaiak ere bideratzen dituzte eta parte hartzen dute kaltetutako adin-txikikoen azterketetan eta, honetaz gain, Prozedura Kriminalaren Legearen 544 ter artikulua ezartzen dituen agertze edo konparezentzietan eskatutako babes ordenak ebazteko eta gertaerak argitzeko beharrezkoak diren gainontzeko diligentsiak ere tramitatzen dituzte.

Araban kasuan kasuko Instrukzio Epaitegiko fiskala etxeko indarkeriaren inguruko ohiko gaiak bideratzeaz arduratzen da eta, guardiari dagokionez, momentu bakoitzean zerbitzuaz arduratzen den fiskala da arduraduna".

Gure ustez, Fiskaltzen antolamendua homogeneoa izan beharko litzateke eta, jakina, genero ikuspegiaz formazio espezifikoak ere izan beharko luke, zeren eta gaur egun hau ez baita betebeharreko kontua. Antza denez, orain genero indarkerian formazioa jasotzen dute, baina emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko espedienteak tramitatzeko formazio horrek ez du ematen formaziorik genero ikuspegiaz.

Sindikatu honek fiskaltzen inguruko hainbat txosten espezifikotan lan zamak ebaluatzeko exijitu du eta, honetaz gain, behin eta berriro eskatu du langile gehiago egoteko eta behar den formazioa eman dadin.

E) BALORAZIO FORENTSE INTEGRALERAKO UNITATEA

Balorazio Forentse Integralerako Unitateak sortu ziren 1/2004 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarriaren harira (Genero Indarkeriaren aurreko Babes Integralerako Legea). EAEn hauen funtzioak Auzitegi Medikuntzaren Euskal Institutuaren klinika forentsearen zerbitzuei dagozkie.

Unitate hauek ekintza espezializaturako erakundeak dira, genero indarkeriari erantzun osoa ematearren. Aditu bidezko frogak autoritate judizialak eskatuta burutzen dituzte. Hauen balorazioak disziplina anitzekoak dira (taldean adostutako lanaren bitartez egiten dituzte eta taldean hiru profesional mota egoten dira: psikiatrian adituak diren mediku forentseak, psikologoak eta gizarte langileak) eta balorazio integralak dira (emakumea ez ezik, erasotzailea eta menpeko beste pertsona batzuk ere ebaluatzen dituzte; epaitegitik emakumearen balorazioa besterik eskatzen ez denean, profesionalen eskaeraz eta frogarako egokitutako jotzen badute, ikertutako pertsonaren zein seme-alaben balorazioa ere gehitu dadila eskatzen dute. Honetaz gain, indarkeria fisiko, psikologiko, sexual eta ekonomikoa izaten dira aitortuak).

EAEko Fiskaltzaren 2017ko txostenean agertzen denez, balorazio forentse integralerako unitatearen zeregina funtsezkoa da ebazteko genero indarkeriaren biktima psikologikoki kaltetua izan den, genero indarkeriak berezkoa duen desberdintasun, botere gehikaria eta kontrol egoeraren ondorioz; eta ikertua den gizonak genero indarkeriaren faktore psikosozialak erakusten ote dituen jakiteko. Unitateak biktimarengan tratatu txarren ondoriozko kalteak badaudela ebazten badu, bere konklusioak ahozko epaiketan funtsezko froga dira genero indarkeriazko ohiko tratatu txarren delitua badagoela egiaztatzeko eta unitate hau osatzen duten profesionalak fiskalak peritu moduan deitu ohi ditu.

Baina unitate forentsean lana ez da mugatzen biktimen kaltea baloratzera, indarkeriazko dinamikaren elementu sinesgarriak ematera eta ikertutakoari delitua egozten dioten gaietara; honetaz gain, garrantzi sozial handiko aditu bidezko froga ere egiten du: emakumeen kontrako jokabide biolentoak etorkizunean errepikatuko ote diren ere baloratzen du, arrisku balorazioa deitutakoa, alegia. Bizkaiko unitate forentsean, eta arrisku balorazioa genero indarkeriaren balorazio integralaren parte delakoan, 2010etik giro biolentoaren balorazioa egin izan da emakumearen kontrako indarkeriaren inguruko aditu bidezko froga guztietarako, non bikotekide biak aztertutak izaten diren. Erabiltzen duten metodologia literatura espezializatuan "ebazpen profesional egituratua" deitutakoari dagokio; honek eskarmentu profesionala eta ikerketa enpirikotik deribatutako faktoreak konbinatzen ditu. Eta poliziaren aldetik egiten den arriskuaren balorazioarekin konparatuta, hainbat abantaila ditu.

Elkarriketak erabiltzen ditugu eta ez formularioak. Informazioa exhaustiboki eta hainbat iturri objetibotatik lortzen dugu. Enpirikoki eskuratzen ditugun arrisku faktoreak hiru profesionalak konbinatzen eta neurtzen dituzte eta euren esperientzia profesionala gehitzen diote. Kasuak banan-banan eta bereziturik aztertzen dira eta ez erabiltzen den erramintak ematen dituen talde-ezaugarrien arabera. Bizkaian disziplina anitzez egiten den balorazio hau Araban psikologoek egiten dute.

Aipatu dugun 2017ko Fiskaltzaren txostenak, bestetik, adierazten du Gipuzkoako fiskalak ohartarazten duela unitate forentsearen txostenak atzerapenez lantzen direla medikuek duten lan bolumena handia delako eta, honen ondorioz, **prozedurek hilabeteak ematen dituztela geldirik adituen froga-txostena noiz helduko zain.**

Hau guztia epaitegiko langileek egiaztatu digute eta ziurtatu digute espedienteak luzaroan etenda egoten direla, harik eta Gizpukoako unitate forentsearen txostenak jaso arte.

Era berean, nabarmendu behar dugu biktimari ematen zaion lehenbiziko arreta guardian dagoen mediku forentsearen aldetik izaten dela; pertsona hau sarri askotan ez da psikiatrian aditua eta ez du izaten genero

indarkeriaren inguruko formaziorik. Lurralde batzutean, gainera, aurreko lesio parteak baloratzen dituen pertsonak ere ez du honen inguruko formaziorik jaso.

Nafarroan, berez, unitate hau osatuta dago, baina ez du horrela funtzionatzen; egunez egun Nafarroako Auzitegi Medikuntzaren Institutuak egiten duen lan banaketaren ondorioz, zenbait pertsona aritzen dira gehiagotan honelako lanetan beste batzuk baino, zeren eta Unitateak ez baitauka baliabide materialik ezta giza baliabiderik ere.

F) EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EPAITEGIETAKO INTERPRETEAK

Beste herrialde batzuetatik datozen emakumeen egoera eta baldintza zehatzek euren babesgabezia edo ahuldadea areagotzen dute tratatu txarren aurrean. Hauen artean, kultura eta hizkuntza ezezagunaren arazoa daukagu.

Komunikazioa justizian zaila da, baita hizketakideek hizkuntza berean egiten dutenean ere. Indarkeriaren biktimak izaten dituen egoera komunikatiboak honako hauek izan daitezke: elkarrizketak abokatuarekin, forentseen balorazioa, deklarazioa ahozko epaiketan e.a. Hauek guztiak egoera dramatiko eta estres handikoetan gertatzen dira. Interprete profesionalen faltak zuzen eragiten die beste herrialde batzuetatik datozen emakumeei. Interprete profesionalak parte hartzea ezinbestekoa da segurtasun juridikoa bermatzeko eta biktimen eskubideen errespetua ziurtatzeko, batzuetan euren eta euren seme-alaben bizitzetarako biziki garrantzitsuak diren erabakiak hartu behar baitituzte epaiketa azkarrak dakarren arintasunaz.

Profesionalen faltak babesgabezia larria ekar diezaike hizkuntzaz ez dakiten indarkeria biktimei. Gainera, itzulpengintza zerbitzua osatzen duten lagunei ez zaie eskatzen genero indarkeriaren inguruko ezagupenik (zenbaitetan, adierazpide matxistak erabiltzen dituzten pertsonak dira).

Euskadiko Justizia Administrazioan hizkuntzen interpretazio zerbitzua lehiaketa bidez OFILINGUA S.L. enpresari kontratatu zitzaion. Indarkeria arloko epaitegietan aritzen diren OFILINGUAKo langileak ez dira profesionalak eta ez daukate formaziorik genero indarkeriaren inguruan.

Genero indarkeria kasu batean gertatu zen, interprete hauek egiten zuten itzulpenak zalantza sortzen zuenez, emakume interprete baten presentzia eskatu zela. Enpresaren erantzuna izan zen oso emakume interprete gutxi dauzkatala. Era berean, oso ohikoa da interprete berberak hainbat hizkuntzen itzulpena egitea eta, gainera, interpreteak berak gazteleraz komunikatzeko zailtasunak izatea. Jakin izan dugu deklarazio diligentziaren batean, biktimak luze hitz egin ostean, interpreteak pare bat hitzetan laburtu izan duela deklarazioa. Ezin da ziurtatu biktimak guztiz ulertu duenik, ezta interpretatzen duenak ere ulertu duenik, azken honek ere komunikatzeko arazoak izaten baititu.

Nafarroan interpretazio zerbitzua ona da; hala ere, hauei ere ez diete exijitzen genero perspektibako formaziorik.

G) BIKTIMARI LAGUNTZA ZERBITZUA

Eusko Jaurlaritzaren Biktimari Laguntza Zerbitzua eta Nafarroako Gobernuaren Delituen Biktimari Laguntzeko eta Organo Judizialekin Kolaboratzeko Zerbitzua (Biktimen Bulegoa) zerbitzu publiko, borondatezko eta doakoa da. Edozein ekintza deliktibok eragindako pertsonen laguntza psikologiko, sozial eta juridikoa emateko xedez sortuak dira. Bere helburua da sortutako kalteak samurtzea eta biktimak instituzio polizial eta judizialekin daukan harremanetan sor daitezkeen eragin kaltegarriak ekiditea.

Biktimari Laguntza Zerbitzuaren azken memoriak (2017ko urtekoak) eman zituen datuen arabera, tramitatu ziren 2.201 espedienteetatik genero indarkeriaren ingurukoak nabarmendu beharrekoak dira: 1.074 espediente; hau da, espediente guztien %49.

Eta Nafarroako 2017ko memoriaren datuen arabera, herrialde honetan ere emaitza nahiko parekoa da: tramitatu ziren 390 espedienteetatik, 208 genero indarkeriaren ingurukoak izan ziren; espediente guztien %53, alegia.

Biktimak normalean ez dauka informaziorik bere eskubideen inguruan, galduta eta desorientaturik dago, kontakizun berbera errepikatu behar izaten du hainbat pertsonen aurrean... Informazio eta laguntza faltak, askotan, kalte handiagoa egin ahal dio gertaerak berak baino. Honi **bigarren biktimizazioa** edo **berbiktimizazioa** deitu ohi zaio.

Gure ustez, zerbitzu honek ezinbestez bermatu behar du indarkeria biktimei behar besteko informazioa eta laguntza emango zaiela.

Era berean, uste dugu aniztasun funtzionaldun biktimek zerbitzu berezia jaso behar dutela Biktimen Laguntza Zerbitzuaren aldetik. Lagun hauek egoera babesgabeagoan egon daitezke eta bazterketa sozial handiagoa paira dezakete. Pairatzen dituzten bortxaketa fisiko eta psikologikoak nekez adierazten dituzte eta askotan horrek euren baitan ixtera eramaten ditu; hortaz, administrazioek honelakoetan erantzun sendo eta irmoa eman behar dute.

II. BALIABIDE MATERIALEN AZTERKETA

Emakumeen kontrako Indarkeriaren arloko epaitegiak martxan ipini ziren behar bezalako diseinu arkitektonikorik gabe, hau da, hauen premiak kontuan hartu gabe. 2005. urtean EAEn eta 2007an Nafarroan, zenbait epaitegi misto eta Instrukzioko beste batzuk indarkeria epaitegi bihurtu ziren, aretoetan obra txikiak eginda. 13 urte eta gero, epaitegi hauetako askok ez dute oraindik betetzen espezialitate honetako auzitegiek behar dituzten baldintza minimoak.

Biktima eta erasotzailearen arteko kontaktua (ikusmenez zein ahotsez) ekiditeko baldintza egokirik ez dago. Aretoak oso txikiak dira eta ohikoa da, biktima bere senideekin, lagunekin edota adin txikiko seme-alabekin itxarongeletan dagoenean, deklarazioa eman aurretik, elkar topatzea. Askotan abokatuek emakume hauekin

gutxieneko intimitaririk gabe komunikatu behar dira eta pertsona ezezagunen aurreran gai guztiz intimo eta mingarriak azaldu behar izaten dituzte.

Biktima eta salatutako gizona areto batetik bestera mugitu behar dira azterketak egiteko, deklarazioak emateko e.a. eta funtzionarioek, prozedura tramitatzeko euren zereginetaz gain, ahaleginak eta bi egin behar izaten dituzte biktima eta erasotzailearen artean kontakturik egon ez dadin.

Aipatu dugunez, salaketa jartzen duten **emakumeekin batzuetan adin txikiko seme-alabak ere etortzen dira**. Epaitegietan ez dago eurentzako areto egokirik, ezta premia berezi horretaz arduratzeko langile espezializaturik ere. Hortaz, administrazio arloko langileak izaten dira ume horiek zaintzeaz arduratzen direnak, euren lanpostuetako zereginak betetzen dituzten bitartean.

Instalazioek daukaten beste arazo bat **isolamendu akustikoaren falta** da: esate baterako, LAB sindikatuko ordezkariok Bergarako Epaitegira egin genuen bisitetako batean, jakinarazi ziguten epailearen aurreko deklarazio batean biktimak izu-ikara atake bat pairatu zuela, alboko gelan bere erasotzailea entzundakoan.

Bisita horretan, bestetik, jakinarazi ziguten sarritan eskatu dutela *erabilera anitzeko gelan telefono bat* jartzeko **kanpoaldearekin komunikatzeko** eta Sailak erantzunik ere ez diela eman. Telefono honen ezean, langileek euren telefono propioak erabili behar izaten dituzte bideokonferentzia bitarteko konexioa egiteko zailtasunak daudenean.

Emakumeen kontrako Indarkeriaren arloko zenbait Epaitegitan gertatu diren **klimatizazio arazoak** ere aipatu behar dira. 486/1997 Erret Dekretuak lantokietako segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen ditu eta lege honek adierazten dituen gehieneko tenperaturen mugak hainbat kasutan gainditu egin dira. Nabarmendu behar dugu haurdun dauden emakumeek eta besoetako umeek denbora oso luzez itxaron behar izan dutela eta arrisku handia izaten dutela bero-kolpeak jasateko.

Jakin badakigu epaitegi guztietako instalazioak ez daudela egokituta **aniztasun funtzionala duten pertsonak** hartzeko, ez sarbideetan, ez arreta mostradoreetan... eta egokitze falta honen adibide argia Bergarako epaitegia da, esaterako.

III. GENERO INDARKERIAREN INGURUKO FORMAZIOAREN AZTERKETA

Formazioa estrategikoa da genero indarkeriaren kontra; hortaz, ezinbestekoa da genero indarkeria epaitegietako prozesuetan parte hartzen duten **profesional guztiek** izan dezatela formazio espezifiko genero perspektibaz eta hau derrigorrezkoa eta etengabea izan dadila.

Esan bezala, formazio hau derrigorrezkoa eta kalitatekoa izan behar da, indarkeria kasuetan parte hartzen duten eragile guztien aurreiritzi eta estereotipoak ekiditeko: fiskalak, epaileak, forentseak, polizia, abokatuak eta justizia arloko gainontzeko langileak.

Themis Emakume Juristen Elkarteko presidentek, Amalia Fernández Doyaguek esaten duenez, egoera hau uste baino "ohikoagoa" da. Honen arrazoia enpatiarik eta genero formaziorik eza dela diosku eta hau epaitegi espezializatuetan ere gertatzen dela.

Indarkeria epaitegietako eta indarkerian espezializatutako epaitegi penaletako epaileak baino ez daude formatzera behartuta. Formazio hau online teoriako 16 ordu eta organo judizialetan hamabost egunetako egonaldian datza. Formazio honetatik kanpo geratzen dira epaitegi mistoetan aritzen diren epaileak, fiskalak, entzutegi probintzialak eta Justiziaren Auzitegi Gorena; azken instantzian, errekursorik balego, prozedimenduak hauexek ebatzi arren.

Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrak urtero eskaintzen ditu epaileentzat derrigorrezkoak ez diren formazio kurtsoak. Hauetara joaten diren langileak ez dira ordezkatuak izaten eta, hortaz, normalean ordezkapena guardiako epaileak egiten du (guardiako epaitegiaren ardurarekin batera). Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen ikastaroetarako ordezeko epaileak egoten dira. Epaileek adierazi digute kurtso hauek oso interesgarriak direla, kurtsoen edukietaz gain, esperientzia profesionalak partekatzeko eremuak ere badirelako.

Fiskalek, abokatu judizialek, forentseek eta Emakumeen kontrako Indarkeria arloko Epaitegietako gainontzeko langileek ez dute inolako formaziorik jasotzen. Formazioa langileek euren borondatez hartzen dute eta, zenbaitetan, euren kabuz formatzen dira.

Prozedura hauetan lan egiten duten lagunak ez daude jendartean existitzen diren estereotipo eta aurreiritzi matxisten eraginetik aparte eta honek ondorio nabarmenak izaten ditu euren zeregin profesionalean.

Epaileek berdintasun printzipioa zeharka aplikatu behar dute ordenamendu juridiko osoa interpretatzean. Genero ikuspegiaz epaitzeak esan nahi du tarte hartzen dugula aztertzeke eta erabakitzeke ea aurreiritzi eta estereotipoek kutsatuta ote gauden.

Justizia patriarkala dela oihukatzen da kaleetan. Zenbait epaile eta fiskalen komentario lotsagarrien grabaketak eta hainbat ebazpen ezagututa, agerian geratzen da espezialitate honetako epaitegietako partaideen formaziorik eza.

Erabaki judizialak ez daude epaileen menpe besterik ez, aldezturik parte hartzen duten hainbat eragilek ere eragiten dute azken erabakian. Aurreiritzi eta estereotipoak batzuetan langileen iritzietan finkaturik daude: komentario matxistak, arrazistak, balizko denuntzia faltsuak laguntzak kobratzeko eta gerora erasotzailearekin itzultzeko... Honek guztiak argi uzten du genero formaziorik eza, emakume migranteen edo ijitoen inguruko imaginario guztiz ezkorra... hitz batean, epaitegira beltzunez beterik eta kolpaturik heldu behar, sinistua izateko. Makineria judizialaren parte diren langile guztiek jaso behar dute formazioa: epaileek, fiskalek, forentseek, abokatuek, poliziak, interpreteek, psikologoek, gizarte langileek eta administrazio langileek. Formazio derrigorrezkoa eta etengabea, informazioa trukatu ahal izateko eta hutsuneak atzemateko.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA ARLOKO EPAITEGIETAN ATZEMAN DIREN HUTSUNEAK KONPONTZEKO PROPOSATZEN DITUGUN NEURRIAK

«Todas las desgracias del mundo provienen del olvido y el desprecio que hasta hoy se ha hecho de los derechos naturales e imprescriptibles del ser mujer» Flora Tristán.

Emakumeen kontrako indarkeria emakume eta neskatoen giza eskubideen aurkako eraso da. Legeen markoak ikuspegi hau jaso behar du eta funtsezko eskubide hauek defendatu, eta barne hartu behar ditu prebentzioa, arriskuan jartzen dutenentzako zigorrak eta biktimen konpentsazio zein erreparazioa. Honek berarekin batera dakar segurtasuna, bizi kalitatea eta ongizatea hobetzea lehentasuna izan behar dela eta, horretarako, kalitate handiko zerbitzuak eskaini behar dira, emakume eta umeentzat egokiak eta eskuragarriak izango direnak. Emakumeen kontrako indarkeria epaitegiei behar besteko garrantzia eta arreta eman behar zaie; premiazkoa dute, nahiz eta sekula eman ez zaien. **Delitu matxistak zabaldu behar dira eta ez mugatu bikote eremuan gauzatzen diren horietara** eta eskumen hau bermatu eta baldintzatu behar da. Honetarako, epaitegiak giza baliabide eta baliabide materialez hornitu behar dira eta, honekin batera, antolaketa judiziala arrazoizkoa eta lan zametara egokitua izan behar da.

- Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari dei egiten diegu justiziako eskumen osoa aldarrika dezaten, eskumen marko berri horretatik organo hauek dauzkaten arazo guztiei heldu ahal izan diezaiegun.

- Euskadiko Justizia Sailari eta Nafarroako Justiziaren Zuzendaritza Orokorrari dei egiten diegu ahalik eta lasterren epaitegi hauen inguruko negozioazio mahai monografikoa martxan ipin dezaten, honako edukin hauek jorratzeko:

I.- GIZA BALIABIDEAK

- Indarkeria epaitegi guztietan dauden lan zamak aztertu eta beharrezkoak diren giza baliabideez hornitu daitezela.
- Ordezkapenerako txanda espezifikoak arbitra dadila, organoko titularra edozein arrazoiengatik bere lanpostuan ez dagoenerako (oporraldiak, aldi baterako ezintasuna, formazioa e.a.).
- Konponbide urgente moduan, eta lanpostuen balorazioa egiten den bitartean, destino hauen zailtasun eta nekagarritasuna konpentsa dadila.
- Indarkeria arloko eta Instrukzioko Epaitegietak langile guztiek genero indarkeriaren eta genero perspektibaren inguruko derrigorrezko formazio espezifikoak jaso dezatela eta genero indarkeriaren kasuetan parte hartzen duten gainontzeko eragileei ere eskaini dakiela.
- Abokatuen Euskal Kontseiluarekin eta Nafarroako Abokatuen Elkargoarekin sinatutako hitzarmenak berrius daitezela, biktimei ematen zaien doako laguntza juridikoa egokitu ahal izateko indarkeria epaitegietan egon den lan kargaren hazkundeari (lege erreformen ondorioz gertatu dena) eta, honela, abokatu faltagatik gertatzen diren itxaronaldi luzeak ekidin daitezela.
- Interpretaren profesionaltasuna eta izan behar duten genero inguruko formazioa berma daitezela.

- Biktimarekin batera joaten diren adin txikikoak zaintzeko zerbitzua berma dadila, zeregin hau epaitegiko langileen bizkar egon ez dadin eta biktimaren zein adin txikikoen oinarritzko arreta eskubideak berma daitezen.
- Biktimari Laguntza Zerbitzua biktima guztiei zerbitzua eskainiko zaiela berma dadila. Epaitegiko mostradorean zerbitzu honen berri ematen duten esku-orriak egotea ez da inondik inora nahikoa; biktima bakoitzari eskaintza pertsonalizatua egin behar zaio, abokatuen laguntza juridikoarekin egiten den bezala. Zerbitzu hau ematen duten profesionalek formazio egokia izan behar dute, informazio osoa egokitua, eskuragarria eta inklusiboa izan dadin eta aniztasun funtzionala duten emakumeen intimitatea ere babestu dadin.
- Balorazio Forentse Integralaren Unitateetako langileek arriskuaren balorazio urgentea egin ahal izatea ahalbidetu dadila eta, horretarako, aprobeitua dadila langile hauek, hainbat urtetan zehar arrisku balorazioa modu programatuan egin ostean, lortu duten eskarmentua.
- Nafarroan Balorazio Forentse Integralaren Unitateak benetan gauzatu daitezela eta beharrezkoak diren langileez hornitu daitezela.

II.- BALIABIDE MATERIALAK

- Indarkeria epaitegi guztien instalazioak egokitu behar dira honelako auzitegiek daukaten premiei. Hortaz, neurriak hartu behar dira aretoetan biktimaren intimitatea eta pribatutasuna bema ditzaten eta, honekin batera, biktimarekin batera doazen adin txikikoen zaintza ziurta dadin. Honetarako, epaitegiak hainbat baliabidez hornitu behar dira:
- Areto egokiak, klimatizazio ona eta isolamendu akustikoa daukatenak, honako hau bermatzeko:
- Itxaronaldiak kudeatzea, adin txikiko seme-alabak ere kontuan hartuta.
- Abokatuarekiko komunikazioetan pribatutasuna bermatzea, mostradore aurreran, argiki, ezinezkoa dena.
- Salatutako gizonarekiko kontaktua, ikusmenez zein ahotsez, ekiditzea.
- Erabilera anitzeko aretoak kanpoaldearekin komunikatzeko telefono lineaz hornitzea, epaitegiko langileen lana erraztearren.
- Aniztasun funtzionala duten pertsonen izan ditzaketen oztopo arkitektoniko guztiak ezabatzea.